

Labur aritzeko eskatu diguzue. Eskaera egokia, besteak beste, esan ohi denez, *berbarik onena, laburrena*, omen da eta.

Gizalegezkoa, lehen-lehenik, emandako izendapena Euskaltzaindia osoari eskertzea. Begirunez hartzekoa euskararen instituzio gorenaren aitortza.

Hori adierazi eta gero, zehaztu behar dut euskararen alde egin dudana, bizitzakoaldi eta tarte guztietan -eta batzuk oso gogorak ere izan dira- bizitzea egokitu zaidan inguruari esker, eta aldamenean izan ditudan pertsoneri esker gauzatu ahal izan dudala.

Hasteko, neure familiak emandakoari esker, eta jaioterrian bizi genuen erabateko giro euskaldunaren bidez jasotakoari esker.

Jauzi handi bat eginez, Udako Euskal Unibertsitatean aritutako urteak gogoratu behar. Horren kariaz, azpimarratu behar dut Euskaltzaindia izan zela, hain zuzen, diktadura garaietako urte haietan, ekimen haren babesle nagusia. Ezinbestean, eskertuta dago UEU.

Militantzia miresgarriaz jardun zuen irakasle eta ikasle zoragarri inguratuta sentitu nintzen ni UEUko egiteko hartan. Izendapena nik jaso dut, baina haiei guztiei eta haien lana jarraitzen duten UEUko kideei dagokie meritua. Horregatik, bada, euei guztiei eskaintzen diet, bihotz-bihotzez.

Aitortzak aitortza, 1973an abiatutako Euskal Unibertsitatearen aldeko UEUren langintzak ekinean darrai, bide berriak egokituz eta jorratuz. Horren adibiderik gaurkotuena, ikastaroak gutxietsi gabe, oraintxe bertan, Adunako Belkoain mendian indusketak egiteko, beste zenbait instituzioetako lankidetzaz antolatu eta burutzen ari den auzolandegia. Hortxe dago, egiaz, nik jasotako izendapenaren benetako euskarria.

Honenbestez, katea, kateak esan beharko nuke ekitaldi honetan, ez daitezela eten.

Martin Orbe

Bilbo, 2014ko uztailaren 18an